

## KANALAK

Gure produktua ahalik eta pertsona gehienek ezagutzea gustatuko litzaiguke eta horretarako hainbat kanal ezberdinen bidez saltzea da gure asmoa. Horrela jende askori iristeko aukera handiagoa izango dugu eta produktua ezagunera eramango dugu.

Webgune bat sortzeko asmoa dugu bezeroengana iristeko, bertan gure produktuaren oinarrizko informazioa jarriko dugu bezeroen eskura, eta gurekin kontaktuan jartzeko baliabide nagusia izango da webgunea, hau da, harremanetarako bidea izango da, interneten bidez denok edukiko dutelako sarbidea. Hortaz aparte, bertan produktua erosteko aukera izango dute, eta produktua saldu ondoren, bezeroren batek arazoak baditu eta gurekin kontaktuan jarri nahi badu, webgunean egongo da eskuragarri telefono zenbaki bat guri deitu ahal izateko. Gainera, bezeroren batek zerbait pertsonalizatua egiteko asmoa badu, bertatik jarriko da gurekin kontaktuan eta horrela jakinaraziko dizkigu dituen ideiak eta diseinuak.

Gure produktuaren salmenta, amazonen bitartez ere egingo dugu. Beraiekin kontaktuan jarriko gara, ondoren, bertan saldu ahal izateko ordaindu behar den diru kopurua ordainduko dugu. Horrela leku desberdinetako jendeak edukiko du gure produktua erosteko aukera. Hau etxetara iristiaz amazonen esku utziko dugu, baina arazoren bat edukiz gero iruzkinen bidez laguntzen saiatuko gara, horrela beraiekin kontatua izateko aukera izango dugu eta beraien galdera guztiak erantzuten saiatuko gara bezero guztiak produktuarekin gustura egoteko asmoz.



Amazonen egoteaz gain, gure asmoa da Ferrokey eta Coferdrozarekin kontaktuan jartzea, gure produktua bertan saltzeko. Honek, amazonek bezala, Espainia mailan aterki lehorgailua zabaltzea erraztuko digu, izan ere, enpresa hauek oso famatuak dira eta gure produktuaren salmenta bultzatuko dute. Beraiekin kontaktuan jartzen garenean, salmenta bakoitzeko parte bat beraientzat izango da eta portzentail hori finkatuko dugu, ondoren desadostasunik ez egoteko .

Azkenik, pentsatu dugu ideia ona izango litzatekela herriko denda batean jarriko bagenu. Horrela, bertako jendeak produktua ikusteko aukera edukiko luke, eta nahiko balute erosi ahal izateko ere. Hortaz aparte, herritarrek arazoren bat edukiko balute dendan konpondu ahalko litzateke, izan ere, noizean behin dendatik pasako ginateke arazo teknikoak konpontzeko. Herrian jartzea erabaki dugu bertako dendei aukera bat emateko produktua ikusteko eta nahiko balute erosi ahal izateko, horrela bertako merkatuari laguntza bat ematen diegu. Honetarako, dendari saldutako produktu bakoitzeko proportzio bat emango diegu.